

ZERTAZ IDATZ

Gertaerarik eta kontakizunik aski bada gure artean, baina ez dira kontagai, isilgai baizik.

Amets beldurgarriak denok egin izan ditugu mutikotan. Oihu egin nahi eta hitzik ezin egin, ihesi joan nahi eta ezin korri egin. Bihotza taupaka, arnasa estu, garrasi batean esnatu ohi ginen. Hura larria! Hura izerdi patsa!

Honelako zerbait gertatzen zaigu gaurregun idazleoi ere: nahi eta ezin, ezin eta nahi. Norbaiti dei egin nahia, norbaiti esan nahia. Lebertzer barrua eta isilik gorde behar.

Eta, jakina, errurik ez duenak nozitzen du gero askotan. Aldame-nekoari erasotzen diogu. Izan ere toki estuan ezin daiteke ondokoa jo gabe ibil. Toki itxian diren ganaduak ere berehala hasten dira adarka. Toki lasaian otzanak dituzu, ez dute ia inoiz burrukarik egiten.

Kabiezinak aztoratzen ditu eta elkarren artean bihurtitzen. Nole-rabait lasatu behar bait da barruko erremina eta larria, itxurak jar-zen duen itomena.

Antzeko zerbait gertatzen zaigu idazleoi. Gairik gurenak, kilma-garrienak, bizenak eta irakurgarrienak ez dira kontagai. Ezin dugu aztertu eta argitu behar bezala geure ingurua.

Zer egin? Zertarako idatz?

Gaurean ilunean eta bakardadean isilik doan mutikoaren antzera txinifik atera gabe geratzeko gogoa sumatzen du idazleak bere buruan. Izan ere gure artean diren gorabehera eta jokabideez ez idazte-koan, isiltzea hobe ote duen iruditzen zaio.

Galdu duen semeaz ezin la ahaztu gurasoa. Bizi-poza bera ere galdu du. Halere, ordea, bizi egin behar da. Galdu duen semeaz orotuz eguneroko lantxoei ekin behar die berriro. Ezin ditzake bazter eguneroko lantxoak. Inoiz galdu duen semeaz ahazten ere saiatu beharko du bizi nahi baldin bada.

Geuk ere ez dugu beste biderik. Eguneroko lantxoei heldu beharko diegu bizi nahi baldin badugu. Gure arteko iritzi, jokabide eta gorabeheren herri eta argibide garbirik eta zehatzik ezin eman dugulako ez gaitzen zeharo isil. Idatz dezagun idatz parabolatan bedenik, iru-di bihurri eta ilunen bidez bederen.

Semea galdu duen gurasoak etxe zuloan izkatutu nahi luke beti-rako. Hori du, ordea, gaixotzeko biderik onena ere. Etxe zulotik atera egin behar du osasunari eutsi nahi baldin badio.

Orobat idazleok ere. Geuron mundu txiki honetatik irten egin behar dugu. Sar dadila gure etxetan atariko haizea. Eguras dadila gure etxe barrua mundu zabaleko haizez. Jakina, hau ere ezin daiteke gure etxetara behar bezala hel. Baina Itorkikegunari ez die-zaio guren atetik eta leihorik itxi.

Bestela erremindurik etxekoari ostikoka eta adarka hasiko bait gara. Izan ere, jakin badakigu, irakurleak gauza biziak nahi ditue-la, gatza eta piperra duen xaltza nahi duela.

Eta geza eta zozoa dena gazitu nabiaz edo urkoari ekiten diogu. Geuron buruei eta besterenari irri eta iseka eginez dihardugun pailazo bilakatu gara idazleok. Aldrebeskeriak eta pailazokeriak idazten ari gara irakurlea loak har ez dezan.

Garapenerako arauak abzatu ditugu. Etxeokoa ebaindu beste lan-ik ez dugula dirudi.

Uxa ditzagun etsialdiak. Kamuts ditzagun eztenak. Bada zertaz idatzirik. Zorrotz dezagun adimena. Bila ditzagun haizea letorkigun-keen zirrikituak.

Narbaitz Baionan mintzo

Elizgizon gisa Iparraldean oso ezaguna (Baionako Bikario izana baita Narbaitz kaloneja), euskaltza-le gisa ere oso saiata («Kattal-len gogoetak», «Ixtorio ederrena» eta «San Franses Jatsukoa» libu-ruak lekuko; baita irratiz igandero hedatutako meza-predikauk; orain beste arpegi bat erakutsiko digu Azkarate-ko baxenabartar azkarak: Kondairre-gizonarena. Urte batzutan barrena mamitua, Ekainaren erdi-tsuari agertuko da haren «Le Matin des Basques» (98 libera berri; Li-brairie Jakin — 8, av. Foch — 64100, Bayonne). Nafarroako erreinu-a sortu arteko mendeak ikertu ditu liburuak.

Hau dela eta, hitzaldi bat eman zuten egileak Baionako Euskal Era-ukotik Joan den Maiztaren 30ean. Eta, dirudienez, zenbait-sailetan bederen, harrigarri gertatuko dira Narbaitzen ideiak eta aurki-kundeak.

—o00—

Narbaitzen pentsaera-hildo nagu-sia hauxe da: Euskal Herriak ez zuela tenk atxiki erromatarren ga-raian. Uste hau, hain zuzen, egia-ren kontraketak dauka. Europako herri-rik gehienak bezala, gurea ere erromatarren eta «des-nortzen» abiatu zen; «des-norketa» horretan gehiena galdu genuen, eta ez gu-txiena. Non galdu, beraz?

Puntu honi buruz erantzuna ema-teko, denak miatu omen ditu Nar-baitzek: erromatarrek berak, visi-godoak, arabitarrek, eta, askotan, gaurko katalan azeritzaileak. Coro-minas buru, Hots, horiek oro kon-tutan hartuta, egilearen erantzuna borobil da: Euskal Herria Mediterra-neotik Kantabriko-raino hedatzen zen erromatarren etorrerakoan; eta Garonatik Ebroko aroraino.

Orain dela 32 urte, eta Menéndez Pidalen bidetik, «la vieja Aquitania y el territorio de cerretanos e ilér-getes» baizik ez zigun aitorzen Caro Barojak (Los Pueblos del Norte, 103); hau da, gure Kruttwigek, Oihe-narten eta Jaurgalen jarraitzaile, «Vasconia»-rentzat proposatu zuena.

Narbaitzen arabera, hortaz, erro-matarrek etortzean, «des peuples vascoïdes» ziren nagusi itaso bate-rik besteraino; eta Akize (= Dax), Auzki (= Auch), Tolosa (= Toulou-se), Narbonaren inguruak, Oska (= Huesca), Zaldua (= Zaragoza), Errio-xako lurraldea, eta abar eta abar, euskal hiri eta herrialde ziren. Har-ritzerokirik ez, beraz, Aran-haranean, Lerdidan alegia, aurkitu diren izkri-buetan: «Ilurberrixio» herri-izena, ia-ia Nafarroako Ilunberri berbera; eta «Anderexo» deitura, aurkitzea. Nor-malak ziren garai hartako Lerdidan, Lerdida euskalduna baitzen.

Akize-ri dagokionez, dato mamitsu bat eman zigun Narbaitzek; eta na-hiz aspaldikoa izan, haren arabera euskaraz ari agertzen zaigu Akize.

Lurraldeari eta jendetzari dago-kienez, hitz batez, hamarretatik be-deratzi galdu genuen euskaldunok; ia-ia osoki. Eta latineratik guretu eta finkatutako hitzen kopuruak (%-ko 75 Lafitterren uestez) gauza bera adierazten du.

Euskal Herria, beraz, *atzeraka* agertzen zaigu betidanik, bati ingu-de eta behin ere ez mailu; inoiz ez aurreraka lurralde arrotzetan barre-na.

Hori bakarrik ez. Zeren eta Euskal Herriko eskualderik aberatsenak (garai hartako ondanez, noski) er-daldundu baitziren, gaur Bilbo ingu-rua bezalatsu agian. Zein aldetan? Kataluñako eta Mediterrane-itsa-tertzeko lurrald galdu genuen; gero «Gascogne» bataiatutako herrialdea (Armagnac, Aturi-arroa), jatorriz «Vasconia» izana; Ebroko arro ge-hientsua; Aragoi garaia. Errioxa eus-kal hizkuntz-uharte bat izana bide da, hortaz, XV/XVI mendera arte; Ribagorza eta Sobrarbe bezalatsu.

—o00—

Nork eutsi zion hortaz euskaldun-tasunari? Narbaitzen erantzuna ze-

hatza izan da: «ce sont les Basques pauvres qui ont tenu», euskaldun txiroek eutsi diote; alegia, mendi tako menditarrek, Iruña hiri «ustel-tako» erre zuten nafarretak; beraz, eskualderik hutsenetako bizilagunek, kulturatik at bizi zirenek, praubeek eta gizarjoeak. Orduantxe ere pun-gogorretako artzainek, haran garaite-tuzkoak eta handikiak, hiritarrek eta aberatsak, erdaldundu egin ziren la-sai. Euskalduntasuna menditasunare-kin nahasia agertu zen. Hauxe bide da Iruñaren erreketaren kaka!

Erromatarren kontra, bestetik, bo-rroka urri euskaldunen aldetik. Gero bai, visigodoekin; eta, hain zuzen, erromatarrez bestaldera, visigodoek beren *legeak* eta beren *erlijioa* sar-tu eta onar erazi nahi zituztelako. Erromatarren imperialismoa, Narbai-tzen utsez, *ekonomikoa* izan zen soil-ki; eta hortaz aurkako mugimendu-rik ez zuten sortu. Visigodoekin, be-rriz, euskaldunen «arima» (ohiturak, sinespenak) ikutu nahi izan ziren antza; eta orduantxe altxa zen Eus-kal Herria, eta hiru mendetan barre-na eutsi zion bere askatasunari odol-itsasotan. Nola ez pentsa ondoko Kondairaz? Burruka-giro hartanxe sortu zen, bestalde, Nafarroako erreinua. Nazio-kontzientzia berria-goa izanik ere, zergatik uka, inkon-zientzian bederen, «arrotz»-en kon-trako herria horren egia, indarra eta aspalditasuna?

Xehetasun interesgarri bat: men-

LARRESORO

(AFRIKAN ZEHAR IBILALDIA)

(Lehenengo orrialdetik)

GIZON BAKETSU ETA ZORIONTSUAK

Gizon baketsu eta errespeto-z-koak dituzu, dituzu, zeuk haien izaera eta ohiturak aintzatzotzat hartzen badituzu behintzat. Oso onartuak izan gara. Beren pre-miartuak eta gaixoardietan lagun-tza eskatzen ziguten.

Zuriok, haiek baino azkarra-goak eta burutsuagoak ote ga-ren iruditzen zaie. Tresna eta gauza harrigarri hornituta ikus-ten bait gintuzten. Haien ohitu-ren berri ere nahitaz jakin be-har genuela uste zuten.

Peulen bizitza kezka, arazo eta barne min handirik gabekoa da. Zoriontsu eta pozik bizitzeko gauza gutxi behar dute. Gauzak eskuratzeari eta pilatzeari ez diote eskerrik ematen. Alaitasuna eta poza azaltzeko ere ez dute zarata handirik atera be-harrik. Argirik eta urik gabe, di-rurik eta osasunik gabe, baina halere alai eta pozik ikusten di-ra.

Arbasoengandik ikasi dutena da berrien eskola bakarra. Gau-za askorik ez dakite, baina gi-duzen osoak eta helduak dirudite. Irauteko bakarrak egin dezakete egiten duten lan bakarra; ez gor-detzeko, pilatzeko, aberasteko edo norbait sonatua izateko. Er-ljioa, ohiturak, gizartearen anto-lamendua, familia bizitza eta abar beren hezur eta mami egi-nik dituzte. Ez dituzte *gaineko* soineko edo eraskin. Barruan bizi eta onartu dituzten zerbait dituzte. Hortan ez dute buruha-uste eta kezka handirik. Elka-rren beharra dute lanean, fami-lian, festan eta bizitzan. Elkar-

de haletan, eta visigodoen eta fran-koen kontra borroka egitean, *bate-ra* eta buruzagi berberen mepen-agarretzen zaizkigu euskaldunak eta «kaskoinkak». Erdalduntzen hasirik ere, babide zegoen oraindik hauei eta haien artean batasun zerbait. Gero, noski, zeharo suntsitua.

Euskaldunak, azkenik, motel oso agertzen dira kristautzeko: guhur omen gara Europako azken kristau-tuak! Hots, honek ere badu bere mamia; zeren-eta gero ere fede be-riarik hartzen luzakor agertzen bai-kara, eta xaharkituak uzten ez pre-satuago. Ez gara oso aldatu, alajain-koak!

—o00—

Ikuspen mamitsua, beraz, eta be-rria, Narbaitz kalonjeak, eskaini di-guna. Ideia horien bañoaz, noski, kondairalariak dute azken hitza. Beha galkizien.

Jadanik halere badago hor uztza ederrik. Ezen «euskal imperialismoa» eta «euskal handitu-nahia» salaten zaizkigunean, egoki etorriko baita *baiterikoa* gure atzeraketa eta txi-ki-keta azaltzea.

Gure herri ukatu eta faltutuan ez baita gutxi izanen!

zeruko
ARGIA
EUSKALDUN ASTEROKOA

HARPIDEDUNEI ESKER BIZI DA
EGIZU, ARREN HARPIDE
BERRI BAT

Izen-deiturak _____
Kalea _____ Zenbakia _____
Herria _____ (Prob.) _____

ERRIALDE